



DIRU SARRERAK



Esan bezala, bai eskolei bai udaletxeei bi programa mota eskainiko dizkiegu: guk proposatutakoa edo pertsonalizatua, gainera kamisetak salduko ditugu.

Hauen prezioa erabakitzeko, “kostuen egitura” ezartzerako garaian dokumentuan adierazitako kostuak izango genituzke kontuan, hala ere, datu hauek ez dira definitiboak. Kostuak prezioaren oinarriak dira, galerarik ez ditugula ziurtatzeko. Oinarri horri irabazi nahi dugun ehunekoa aplikatuko diogu. Azkenik, gure zerbitzu eta ondasun guztiei %21eko BEZa aplikatuko zaie.

Plan pertsonalizatua kontratatu ezker, lan gehiago inplikatu luke, ondorioz gehiago kobratuko genieke.

Eskoletan hitzaldien kostua ezartzeko kontuan izan beharra daukagu nerabeentzat eta umeentzako hitzaldiek prezio ezberdinak izango dituztela; nerabeena garestiagoa izango da, %20-30ko irabaziak izango ditugu, informazio eta lan gehiago hartuko duelako hori. Umeentzako hitzaldiak ordea, merkeagoak izango dira, %20-25ko irabaziak.

Udaletxeei eskaintzen dizkiegun ekintzak talde handientzat pentsatuta daudenez, prezioak garestiagoa izango lirateke, ondorioz %35-40ko irabaziak izango genituzke.

Beste modu bat diru sarrerak izateko kamisetak saltzen izango lirateke, %5-10 bitartean izango dira merke eta ondo erosi ahal izateko.